

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

## 2680

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 19koa, Etxebizitzako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programetarako laguntzen deialdi publikoaren 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneratzea (programa horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).*

2022ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, honako agindu hau argitaratu zen: Agindua, 2022ko ekainaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen baita (laguntza horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).

Agindu horren xedea da urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako 3., 4. eta 5. programetako laguntzak emateko deialdi publikoaren oinarriak garatzea eta deialdi publikoa egitea. Hain zuzen, errege-dekretu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dira, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (Sem) 2. osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko.

Era berean, agindu horren xedea da zehaztea zer bateragarritasun- eta prebalentzia-araubide duten laguntza horiek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduan (etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientiaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Aginduan (alokairua eta etxebizitzaren eta bititoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoa) ezarritako finantza-neurriekin.

2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 6. artikuluan, baliabide ekonomikoak ezartzen dira, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntzen deialdi publikoari aurre egiteko (853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak). Besteak beste, honako hau xedatzen da:

«3.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (Sem) 2. Osagaiaren baitan eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzeko xedearekin Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko laguntza-programak arautzen dituenak 5. artikuluko 2. atalean dioenaren arabera, esleitutako zenbateko globala eta, hala badagokio, Agindu honetan adierazitako Programetako bakoitzari egindako esleipen indibiduala osatuak izan daitezke, laguntzak ebatzi baino lehen, Agindu honetako 3. artikuluan zehaztutako bateragarritasun- eta lehentasun-erregimenaren baitan, etxebizitzaren

eta bizitegi-eraikinen birgaitzea xede duten Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko berezko beste programa batzuen exekuzioan soberan geratu diren aurrekontu-funtsak erabiliz horretarako. Horren berri emango da Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

4.– Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bitartez iragarriko dira aurrekontuetan eginiko zuzenketa onar zitezkeen kredituen eguneratzeak. Halaber, Programa bakoitzera bideratutako laguntzak finantzatzeko urteko kreditua eta, dagokionean, aipatua osatzen duten funtsak agortu direla jakinaraziko da ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako iragarki baten bitartez. Urteko kreditua agortu dela argitaratu ostean, aurrekontu-ekitaldi horretan aurkeztutako laguntza-eskari guztiak zuzenean ukatuko dira».

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko indarreko araudian oinarrituta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programetarako laguntzen deialdi publikoaren 2023ko aurrekontu-ekitaldirako kredituen eguneratzea (programa horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude).

– % 50, Agindua argitaratzean 23.617.167 euro.

– % 50, helburuen % 25 betetzean 23.617.167 euro.

Guztira 47.234.334 euro.

Bigarrena.– 2023ko ekitaldiaren kargura eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ezin izango ditu gainditu lehenengo paragrafoan adierazitako zenbatekoak edo indarreko legeria aplikagarriarekin bat etorritz aurrekontu-aldaketak onartuz gero kopuru horrek izango duen igoeraren ondoriozko kopurua. Aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Beraz, zenbateko hori agortu ondoren, ez da laguntza gehiago emango. Kreditua agortu dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Hirugarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako erregulazioaren arabera erantzun ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik soilik ukatzen diren eskaerak hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira. Agindu horren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen da (laguntza horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude). Horretarako, hurrengo ekitaldian baliabide ekonomiko nahikoak egon beharko dira.

2023ko ekainaren 7a, asteazkena

## AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 19a.

Etxebizitzako sailburuordea,  
PEDRO JAVIER JAUREGUI FERNÁNDEZ.